



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO MARTXOAK 8AN  
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2022/02/17.**

Batzarkideek 2022ko otsailaren 17ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- SANTUENEA 17 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0447

SANTUENE 17 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20370003) ordezkartzan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunak, Santuenea 17 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko abenduaren 18an, zera erabaki zuen: SANTUENE 17 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20370003) elkarteari, Santuenea 17 etxean igogailua jartzeko udal baimena.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	164.929,28 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>162.042,57 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 €
	Fidantza (%120): 1.038 €

**LEHEN ERABILERA BAIMENA**



Usurbilgo Udala

Orain berriz, SANTUENE 17 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20370003) ordezkartzan diharduen MIGUEL A. DELGADO CAMINERO jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunka, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio. Hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantzari dagokionez ordea, fidantza bueltatzeko hondakinak kudeatzeko txostena aurkeztu beharko da dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita eta fidantza bueltatzea espresuki eskatu beharko da horretarako dagokion kontu korrontea zehaztuz.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Santuenea 17 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 15ean ezarritako 1.038,00 €-tako fidantzari (IE 24-2021) dagokionez, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita hilabeteko epea ematen zaio interesatuari hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkezteko dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita. Fidantza bueltatzea espresuki eskatu beharko da horretarako dagokion kontu korrontea zehaztuz.

Hala egin ezean, Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, udal kontuhartzaileak fidantza exekutatu du fidantzaren dirua ingurumena hobetzeko jarduerak egiteko bideratuz. Interesdunak fidantza galduko luke.

**HIRUGARRENA:** Erabakia interesatuari jakinaraztea, hala nola Kontuhartzaileari zergen kitapena egin dezan.

### **3.- USURBILGO OIARDO KIROLDEGIKO INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO OBRA (01-A FASEA), 1. LOTEAREN BERMEA ITZULTZEA.**

Esp. zk.: ID.05/2018-0284

## **IKUSIRIK**

Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018 ekainaren 26an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo Oiardo udal kiroldegiko instalakuntzen erreformentarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren



Usurbilgo Udala

01-A fasea (1. lotea) eta 01-B fasea (2. lotea) kontratuak esleitzeko prozedura ireki sinplifikatuak onartu zituen. 2018ko ekainaren 27an argitaratu ziren iragarkiak Udal Kontratatzaileraren Profileen.

2018 irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak, Usurbilgo Oiardo kiroldetako instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01 fasearen kontratuak (1.lotea eta 2.lotea) Construcciones Mariezcurrena SL enpresari esleitzea erabaki zuen. Bi loteetako kontratuak 2018ko irailaren 17an izenpetu ziren Construcciones Mariezcurrena SL enpresarekin.

Oiardo kiroldetako instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A faseko (1. lotea) kontratuaren 4. klausulak zera dio:

*Berme-epaiek hauek izango dira, harrera formala egin ondoren:*

*- Azpiegitura: 10 urte.*

*- Eraikuntza edo instalazioen elementuetan izandako bizio edo akatsengatik: 3 urte.*

*- Bukaerako elementuetan edo obraren amaierako elementuetan izandako bizio edo akatsengatik, kalte materialen bermea: urte 1.*

Harrera akta 2019ko ekainaren 7koa bada ere erreserbekin egin zen. 2019ko uztailaren 18an udal teknikariak emandako txostenak lehenbailehen zuzentzeko eskatzen zuen eta 2021eko otsailaren 12an udal teknikariak onatatu eman zuen.

2021eko maiatzaren 4an enpresak bermeak itzultzeko eskatu zuen.

Obra-kontratu hauen (bi lote baitziren) 4. klausularen arabera bermealdia urte batekoa zen, hortaz 2022ko otsailaren 11tik obra kontratuaren bermaldia amaituta dago.

2022 otsailaren 14an udal arkitektoak bermea itzultzearen aldeko txostena osatu zuen.

Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**LEHENENGOA:** Construcciones Mariezcurrena SL enpresari Oiardo udal kiroldetako instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A faseko (1.lotea) kontraturako jarritako behin betiko bermea (20.593,02 euroko abala) itzultzea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri Construcciones Mariezcurrena SL enpresari, kontuhartzaileari eta Hirigintza sailari ematea.

**4.- USURBILGO OIARDO KIROLDEGIKO INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO OBRA (01-B FASEA), 2. LOTEAREN BERMEA ITZULTZEA.**



Usurbilgo Udala

Esp. zk.: ID.05/2018-0284

## IKUSIRIK

Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018 ekainaren 26an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo Oiardo udal kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A fasea (1.lotea) eta 01-B fasea (2. lotea) kontratuak esleitzeko prozedura ireki sinplifikatuak onartu zituen. 2018ko ekainaren 27an argitaratu ziren iragarkiak Udal Kontratatzaille Profilean.

2018 irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak, Usurbilgo Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01 fasearen kontratuak (1.lotea eta 2.lotea) Construcciones Mariezcurrena SL enpresari esleitzea erabaki zuen. Bi loteetako kontratuak 2018ko irailaren 17an izenpetu ziren Construcciones Mariezcurrena SL enpresarekin.

Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-B faseko (2. lotea) kontratuaren 4. klausulak zera dio:

*Berme-epreak hauek izango dira, harrera formalak egin ondoren:*

- *Eraikuntza edo instalazioen elementuetan izandako bizio edo akatsengatik: 3 urte*
- *Bukaerako elementuetan edo obraren amaierako elementuetan izandako bizio edo akatsengatik, kalte materialen bermea: urte 1.*

Harrera akta 2019ko ekainaren 7koa bada ere erreserbekin egin zen. 2019ko uztailearen 18an udal teknikariak emandako txostenak lehenbailehen zuzentzeko eskatzen zuen eta 2021 otsailaren 12an, udal teknikariak aldeko txostena osatu zuen.

2021eko maiatzaren 4an enpresak bermeak itzultzeko eskatu zuen.

Obra-kontratu hauen (bi lote baitziren) 4. klausularen arabera bermealdia urte batekoa zen, hortaz 2022ko otsailaren 11tik obra kontratuaren bermaldia amaituta dago.

2022 otsailaren 14an udal arkitektoak bermea itzultzearen aldeko txostena osatu zuen.

Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Construcciones Mariezcurrena SL enpresari Oiardo udal kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-B faseko (2. lotea) kontraturako jarritako behin betiko bermea (11.127,76 euroko abala) itzultzea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri Construcciones Mariezcurrena SL enpresari, kontu-hartzaileari eta Hirigintza sailari ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**